

ELKARRI MOKOKA: Andrea Etxarri eta Mikel Hernandorena **Nor da nor?:** Argazki zaharrak

ELKARRIZKETA NAGUSIA: Belén Pérez de Prado **KUXKUXEAN:** Maiatzeko zorion agurrak

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria

Pilotan ere Nafarroako txapeldun

Ioseba Goikoetxea (Gorriti)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak



Hilabete borobilak izan dira hauek gure kirolarientzat. Araxes Herri Kirol Taldeko kadeteak txapeldun izan dira Nafarroako finalean eta Beteluko Aitzol Zubillagak eta Igor Nazabalek Nafarroako Federazioko Pilota Txapelketa irabazi dute. Zorionak!

Zentzumenak lantzen

Ibarberri eskolako Haur Hezkuntzako ikasleak ostiralero tailerretan ari gara. Adin ezberdinetako haurrak elkarlanean sei tailer ezberdinetan gustura gabiltza.

Sukaldaritza, modelatzea, esperimentuak, bitxiak, margoketa teknikak eta musika izan dira aurtengoak. Hauekin guztiekin gozatuz primeran pasatzen dugu!!



Esperimentuak egin zituzten taldeka.



Margolanak eta sukaldaritza tailerrak ere egin zituzten.



Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com



CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:

948 50 43 31

Lekunberri



edertasun zentroa

Lako beikoa

Betelu 31890

948 513 083

696 732 290

aitzberri@hotmail.com

04> Iritzia

08> Luze: Leire Aranburu

10> Elkarrizketa: Belén Pérez de Prado



16 > Julio Soto txapeldun

Julio Sotok hirugarrenez irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Karga emozional handiko txapelketa dela aitortu digu, baina orokorrean, pozik dago egindako txapelketarekin.

21> Kultura



22 > Korrika

Hamalau urte ziren Korrika, AEKren aldeko lasterketa, Araitz eta Betelutik pasatzen ez zela eta aurtengoan irudi ederrak utzi dizkigu, Madoztik hasi eta Atalluraino.

24> Kirola: Lekunberriko Legoa



28 > Confort zentroa

Desi Zarevak garbitze eta lisatze zentroa ireki zuen orain urtebete Lekunberri eta duela hilabete batzuk garbiketarako produktuak saltzeko denda ere jarri du.

30> Oreka osasuntsua: Nere Sotil

31> Kontu txikiak: Agenda eta Merkatu txikia

Manex eta Karnaba

Manexek, kaskabeltz handiarekin halako atsekabea igaro eta gero, trago txar hura ahalik eta azkarrena gaintzeko, erabaki zuen hoberena zela, berehalaxe beste saialdiren bat egitea. Bi-haramunean bertan, segituan erreparatu zien karnaba batzuei. Izan ere, halako txoriak, etxe ondoko horma batera ari ziren behin eta berriz hurbiltzen, landare batzuen haziak jateko. Manexi ez zitzaion inola ere pasatu xehetasun bat, alegia, landare hazidun haiek ukuiluko atetik hurbil samar zeudela, eta hori horrela, buruko makineria berehalaxe jarri zuen martxan.

Oso denbora gutxiren buruan, gogoratu zuen pertsona heldu batzuei entzundako kontu bat, hau da, galbahea erabili ahal zela txoriak harrapatzeko, eta berehalaxe oroitu zen haren teknikaz.

Zitzu bizian ukuilura jaitsi, pixka batean bilatzen aritu eta, zorioneko galbahea segidan aurkitu zuen. Garbitu eta txukundu ondoren, orduan bi gauza behar zituen mekanismoa behar bezala martxan jartzeko: lokarri luzetxo bat eta makila txiki bat. Manex azkar mugitu zen etxean barna, ukuiluan, etxebizitzan eta ganbaran. Azkenean, denbora gutxian, dena prest zeukan.

Botak jantzi, berokia soinean sartu eta gerturik zegoen kalera joateko. Kanpoan hotz zegoen eta elurra lodi. Hoztu gabe eta ahal izan zuen modurik bizkorrean, dena jarririk utzi zuen aida batean: landare hazidunen gainean, galbahea, alde bat lurtean bermatuta eta bestea makilatxo motzaren gainean, hau zutik zegoela. Galbahea lurrera erortzen zenerako, ongi kalkulatu zuen zirrikiturik ez gelditzeko, txoriek ez zezaten ihes egin. Gero, sokatxoa makilari ongi lotu eta ukuiluko leihatilaraino luzatu zuen delako lokarria. Ukuilu barruan jarri, leihatilaren atzean, eta txoriak noiz etorriko zain gelditu zen. Handik denbora gutxira, karnaba batzuk hasi ziren hurbiltzen landare hazidunetara, errezero pixka batekin, hori bai, baina, hala ere, galbaheari ez zioten aparteko garrantzirik eman eta berehala ekin zioten lanari, hau da, galbahe azpira sartu, landareen gainean pausatu eta haziak jaten hasi. Manexek gorputza pixka bat urduri sumatu zuen, baina, hala ere, lortu zuen bere burua hotz mantentzea, harik eta momenturik egokiena iritsi zen arte. Halako batean, hiru karnaba ikusi zituen galbahearen azpian: bat erdi aldean eta beste biak bazterretan. Orduan zela unerik hoberena erabakita, zapla! tenkatu zuen soka. Galbahea istantean erori zen elur gainera. Manex, ukuilutik atera eta zitzu bizian joan zen ikustera zer gertatu zen tresna azpian. Karnaba bat barruan zegoen harrapatuta; urduri eta oso izututa, jira-biraka hegaldatu nahian. Bazterretako beste biek, ordea, lortu zuten ihes egitea.

Manexek, kontu oso handiz, eskua bahe azpian sartu eta berehala lortu zuen txori gaixoa harrapatzea. Pozaren pozez eta lasterka, berriz ere kaiolaren bila joan zen txori eta guzti, animalia txikitxo hura hantxe sartzeko. Kaiolan sartu ondoren, eta aurreko egunetako akats berbera ez errepikatzeagatik, erabaki zuena zera izan zen, kaiola etxeko gela ilun batean jartzea, horrela, txoria argirik gabe, iluntasunean, lasaiago egonen zelakoan, mokoka eta kolpeka aritu gabe.

Gauzak horrela, kaskabeltz handiarekin egin zuen bezalaxe, aurkitu ahal izan zuen janaria eta ura kaiola barruan paratu, eta traste gela ilunera eraman zuen; hantxe kokatu zuen kaiola karnabarekin. Manexek arretea eta jakin-min handiz jarraitu zuen txori izutiaren bilakaera. Ilunpetan, hegazti txikia isil-gordeka gelditu zen, kolpe txarrik hartu gabe. Horrela eduki zuen egun eta gau osoan, biharamun arte.

Eguna argitu zuen bezain azkar, mutikoa irrikaz eta aldi berean kezkatu joan zen gela ilunera, bere gatibua ikustea. Une hartan geldigeldirik eta isilik zegoen, baina argia piztu bezain laster, kaskabeltza bezala hasi zen, izu-laborri kolpeka, ihes egin nahian, eta horrexe-gatik, zegoen bezalaxe utzi zuen berriz ere traste gelan, egun osoan zehar, ea noizbait etsi eta lasaitzen hasten ote zen. Baina, Manexen zoritxarrerako, bigarren egunsentian karnaba oso makal eta itxura txarrarekin agertu zen; eguerdirako bizitzeari utzi zion, gose, egarri eta ahuleriaren ondorioz.

Manexek berriro ere berebiziko zaputza harrapatu zuen; muzin-durik gelditu zen. Auskalo zein pentsamendutan murgilduta geratu ote zen!

Xanti Begiristain Madotz

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi
mailope@labrit.net-era
hilaren 20a baino lehen.



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldetgia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

Joandakoak Gogoan

“Zuhaitz bezala lurrean, kantuak bezala haizean...”



Maria Otermin, ‘Txartikoneko Mari’

Martxoaren 24an hil zen 87 urte zituela.

**Zenbat kontu, zenbat istori;
zenbat iluntze, eta goiz argi.
Betiko irripar xamur horrekin
agur bizitzari!
Laister arte Moñi!!!**

Birziklatu zure ibilgailuaren hondakinak
Erabilitako olioak eta pneumatikoak berriz ere erabil daitezke

JOAN TAILER ERREGISTRATU BATERA*
Zure ibilgailua eta Ingurumena zaintzen ditugu

Kanpaina honen barnean egin da:
Plan de Residuos de Navarra 2017-2027
Nafarroako Hondakin Plan

* Tailer erregistratuetan Industriaren plaka ardin bat dago; hartan, tailerra zertan dagoen espezializatuta eta erregistro-zenbakia ogeri dira.

Bertso berriak

Mailoperi jarriak

Ioseba Goikoetxea (Gorriti)



*Gazteontzat garesti
da etxebizitza
ahularentzat beti
ondoan da gaitza
gure esku dago hau
konpontzeko giltza
baño zerralla ezin
aurkituz gabiltza.*

*Krisi ta kontua
pasa da denbora
hitz politikak josiaz
beraien **ahora**
baño nabari denez
ez goaz **iñora**
herriaren indarrak
in behar luke **gora**.*

Haydee Calderonetzako puntua:

Udaberria jantzi
da bake kolorez


Oinak:

sua, pultsua, kasua, pausua.



Doinua: "Markesaren alaba"

- 6 -



BERTSO-AFARIA AZKARATEN

Jexux Mari Irazu eta Unai Agirrerekin bertso-afaria izanen da maiatzaren 13an Azkarateko Balerdi elkartean, gaueko 21:30etan. Txartelak salgai daude Beteluko ostatuan eta Arribeko surtidorean.

ZUMETAREN OMENEZKO ERAKUSKETA

Iruñeko Condestable Jauregian José Luis Zumeta margolariaren omenezko erakusketa dago ikusgai maiatzaren 6ra arte. Ondoren, Lesakako kultur etxera eramanen dute. "Artea Oinez" izena du erakusketak. 71 artisten lanekin dago osaturik eta aurtengo Nafarroa Oinez jaialdia antolatuko duen Lesakako ikastolaren aldeko erakusketa da.

SANTA ENGRAZIKO ERROMERIA

Apirilaren 23an, Uitziko Santa Engrazia Baselizara erromeria egin zuten hainbat herritarrek. Apirilaren 16an zen Santa Engrazi eguna, baina aurten Pazko Eguna izanik, atzeratu egin behar izan zuten. Leitza, Lekunberri, Larraun eta inguruko jendea bildu zen eguerdian egin zen elizkizunean.

Prostituzioa legalizatu ala ez?



Andrea Etxarri

Aupa Mikel!! Zer moduz? Ni udaberriko lehen egun goxoetaz gozaten, eguzkia baino bero gehiegirik ez, eta argi ordu luzeagoak eguna aprobetxatzeko. Gaur dakarten gaia askotan agertu izan da dokumentaletan, baina honakoan duela gutxi irakurri nuen artikulu bateko datuak deitu zuen nire atentzioa. Espainiako bost gizonetatik batek prostituzio zerbitzuren bat jasotzeko ordaindu du bere bizitzako momenturen batean, ikerketa horren arabera.


“Norberak bere gorputzarekin nahi duena egiteko askatasuna izan dezakeela pentsatzen dut”

Egia da gaur egun herrialde askotan prostituzioa egoera ilegalean aurkitzen dela, legeak zigorturik. Baina, zein da gure egoera? Espainiar estatuan praktika hau alegala da, hau da, ez da ez ilegala ez legala ere. Beraz, zertara jo beharko genuke? Erabakia har-tzerako orduan, faktore asko hartu beharko lirateke kontutan.

Alde batetik, askatasun sexualaren aldekoa naiz, hau da, norberak bere gorputzarekin nahi duena egiteko askatasuna izan dezakeela pentsatzen dut. Gainera, egia da praktika hau ilegala izateak mafia eta esplotazio sexuala errazten dituela, langileen segurtasun maila baxua suposatzen duela edota haien lan egoera edo bizi kalitatean zuzen eragiten duela.

Hala ere, zenbat dira gogoz kontra lanean diharduten emakumeen kantitatea? Ez luke bat bere ere egon beharrik. Ez dut zilegi ikusten norbaitek, oraindik gutxiago boterezko posizioa duen norbaitek, diruz dena erosten denaren ustean honelako zerbitzu bat kontratatzeke aukera izatea. Nik, pertsonalki, ez nuke gogo onez hartuko benetan errespetatzen, maitatzen edo miresten dudan senide edo lagun batek honelako zerbitzurik hartzea.

Oro har, zer legoke praktika hau legalizatzearen atzean, askatasun sexualaren berrespina edo gizaki batek beste baten gaineko boterezko erlazio bat izatea baimentzea?



Mikel Hernandezena

Aupa Andrea!! Ongi esan beharko! Jada kurtsuaren amaieran eta uda iristeko irrikatzen, egia esan. Tamalez, zuk ikerketa horri buruz aipatutakoari erreferentzia eginez, geroz eta gizon gehiago dira prostituzioaren zerbitzu tamalgarria ordaintzen dutenak. Are gehiago, geroz eta gizon edota mutil gazteagoak dira prostituzio zerbitzu hori jasotzeko ordaindu dutenak.

Bestalde, hainbat artikulu irakurri ondoren, erreferentzia egin nahiko nieke dirurik ez izateagatik, beraien ikasketak ordaintzeko prostituzioaren munduan sartu behar diren neska gazteei,

“Txiki txikitatik haurrekin landu beharreko gaia da”

baliabide ekonomikorik ez dutelako. Hau oso gogorra eta gehiegizkoa iruditzen zait, horrelako kasuak gure gizartean ezin ditugulako onartu. Gainera, kontuan hartzen badugu, oro har, gizartean matxismoa oraindik errotuta dagoela eta zuk aipatu bezala, mafiak atzetik daudela, are okerragoa da egoera.

Praktika hau, mundu osoan ilegalizatu beharko litzateke, gizateriaren eta, zehazki, praktika hau egitera behartuta dauden emakumeen duintasunaren aurka doalako, argi eta garbi. Askatasun sexuala gizaki guztiok izan beharko genukeen eskubidea da, baina ezin gara

prostituzioaren muturreraino iritsi, ezta gutxiago ere.

Lehen aipatu bezala, neskatxa edota emakumeak, beraien egoera ekonomiko eta sozial tamalgarriak bultzatzen ditu, beste irtenbiderik aurkitzen ez dutelako, prostituziora, edota mafien atzaparrek harrapatzen dituztelako. Baina hezkuntza sexualak eta gizarteak ere badu ardura, gizartean oraindik nabarmena den matxismo horretan. Txiki txikitatik, haurrekin landu beharreko gaia da, hausnarketa egiteko azpigai asko barne hartzen dituelako: sexua, generoa, estereotipoak, aukera sexualak, berdintasuna, rola... Pixkanaka-pixkanaka lantzen ari den gaia da, baina orain arte gai tabu gisa hartu izan da. Heziketa sexual hori ondo bideratzen badugu, bestearekiko errespetuan oinarritutako sexualitatea eraikitzeke pausoa emango dugu.





Leire Aranburu

LUZE

Motz eta mehe

Oraingo honetan ez dut luze eta zabal idatzi nahi. Oraingoan esan beharrekoak esateko nahiago ditut hitz solteagoak, motzagoak erabili eta luzatzeko lana zuen eskuetan utzi.

*Nire hitzak
laburregiak agian,
baina hitzen atzean
beti dago pentsamendu sakonagoa.*

*Batzuetan ahaztu egiten zaigu,
barne pentsamenduak ahaztu,
barne gatazkak ekidin,
soluzio eta erantzun errazak,
hanka sartze gutxiago
bizitza erraztua.
Pentsatzea neketsu egiten zaigu,
batez ere gure pentsamenduak badira
gure buruhausteen sortzaile.*

*Sortzaile,
hori da hitza.
Sortzaileak gara.
Leihotik begiratu,
zu zara ikusten duzunaren erantzule
batzuek esango dute
badela sortzaile bat,
sortzaile gorena,
deitu nahi bezala,
jainkoa, gobernu, sistema...
eta zuk onartu egingo duzu,
berak sortu zaituela onartuko duzu.*

*Gezurra,
gezurra da guztia,
ez zaitu inork sortu,
ez zaitu inork sortzen,
hori ez da sortzea,
horri menpekotasuna esaten zaio.*

*Ez zara txotxongiloa,
pentsatzeko gai zara
zure kabuz sortzeko gai.
Nahi bezala,
nahi duzunean,
nahi duzunarekin.
Edo ez sortzeko gai
nahi ez baduzu.
Pertsona askea zara.*

*Barreak
malkoak
desioak
amets gaiztoak
besarkadak
momentuak
begiradak
negarrak
etorkizuna
egiak
gezurrak
ideiak
hitzak
oroitzapenak...
izango direnak sortuko dituzu.*

*Ez dizut gezurrik esango,
bidea ez da erraza izango,
ez dituzu bidelagunak gustuko izango,
ezinezkoa dela esango dizute,
ergela zarela,
zu menderatzen saiatuko dira
eta lortuko dute.
Ordurako hitz bakarra.*

Birsortu.

Antsoenea
BASERRIKO GAZTA



948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZA

634 551 743
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA
- HARATEGIA -**

PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun 

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34



VI. Euskal Herriko Kontakt Inprobisazio Topaketa

Pozez txoratzen nago irakurle, maiatzaren azken asteburuan, 26, 27 eta 28an Lekunberrin egingo baititugu aurtengo Topaketak. Sei urte daramatzat kontakt inprobisazioa dantzatzen, gure inguruetan ez denez oso ohikoa, sustatzeko eta koordinatzeko Euskal Herrian dantza honen inguruko elkarte bat osatu genuen, EHKIE. Urtero antolatzen dugu topaketa bat sortu ginenetik, irekia eta doakoa. Bertan lo egin, dantzatu, elkarrekin egon... Aurten Lekunberriko kiroldegian! Baina... Has nadin hasieratik.

Kontakt inprobisazioa dantza mota bat da, non nor bere buruarekin, inguruarekin eta besteekin kontaktatuta, mugimenduak inprobisatzen diren. Ez du helburu estetikorik berez, ongi pasatzea eta esperimintatzea ditu helburu nagusi. Eta jolas horretan, badaude onura pila egiten dugunontzako. Fisikoki, gorputzarekin harremana hobetzen da, malgutasuna, arreta, mugimendua, behatxago bihurtzen da gorputza, indartsuago... Emozionalki berriz nor bere egoeraren arreta eta errespetua, besteen egoerari arreta, gorputzen arteko entzumena, afektibitatearen lanketa, sexualitatearen inguruko tabuen erorketa, rolen inguruko hausnarketa, iniziatiba...

Ikastaro eta festibal asko daude dantza hau praktikatzeko, baina dantzatzeko era ohikoena "jam sesioak" dira, espazio irekiak non bakoitza bere beharren eta ingurukoekin harremanen arabera mugitzen den. Euskal Herrian hilabetero elkartzen gara Iruñean, Gasteizen, Donostian hilabeteetan bitan, Bilbon ia astero... Gasteizen bi urteko formazio bat ere ari dira gauzatzen. Iruñean klaseak ematen ari naiz aurtengo kurtso hasieratik... Kontakids formazio ere hortik etorri zen... Gero eta hedatua-



“Gauza gutxiarekin gauza asko gertatzen dira”

goa dagoen dantza bat da Kontakta, aisialdi osasuntsuaren ikur niretzat. Gauza gutxiarekin (areto egoki bat, arropa eroso eta ura) gauza asko gertatzen dira, pertsonen arteko benetako entzumetik eta jolasetik.

Euskal Herrian dugun mugimenduz gain (50 bazkide gara elkartean), asko Espainian eta Frantzian ere mugitzen gara bertako jendearekin dantzan. Guretzat eta lagunentzat antolatzen dugu Topaketa, arituentzat eta hasi berrientzat, dohakoa eta denon artean osatzen duguna, herriak lokalak uzten, batzuek klaseak gidatzen, besteek musika jotzen, besteek garbitzen... Horrek oso asteburu berezia sortzen da, esker onez betea, dugunarekin moldatzen eta bakoitzak beretik jartzen. Topaketan bertan egiten dugu urteroko elkarreko batzarra, baina horretaz gain bost ekintza mota daude.

Klase gidatuak egongo dira, non borondatezko irakasleek dantzatzeko haien tresnak partekatuko dituzten gurekin. Aurten, berritasun gisa, Kontakids proposamena ere egongo da larunbat eta igande goizean, guraso eta 2-5 urte arteko umeentzat. Ostiral eta larunbat gauetan eta igande arratsaldean, jam saioak izango dira. Larunbat gauean, Kantinan dantza festa bat egingo dugu, ez zehazki kontaktekoea baizik eta ateratzen zaiguna, jai giroan gorputzarekin ospatzeko. Eta igande goizean, ziur aski Natur berdeen egunarekin lotuta, Kantina aldean Performance antzeko bat ere.

Esan dudan bezala, ez da inolako aurrejakintzarik behar, bakoitza bere egoeraren arabera mugitzen da (badaude behar berezietakoak...) Umeak ere ongi etorriak dira. Ikustera etorri nahi baduzu ere, ongi etorria. Doakoa. Eskatzen den bakarra errespetua da. Apirilean ari naiz hau idazten eta jada jende pilak izen eman du... Izen ematea kontakidserako ezinbestekoa da, lo egin nahi baduzu ere, bestela ere antolakuntzari asko laguntzen diguzu izena emanda. Bertan ikus gaitzkeelakoan, besarkada handi bat eta aurrera!

“Ikusi ezinak ez du esan nahi gertatzen ari ez denik”

- 10 -



Nork ez du bizi izan gertutik edo pairatu kasurik okerreanean bullying-a edo eskola-jazarpena ikasle garaian? Belén Pérez de Pradok “Erasoa saihesteko eta behin gertatzen denean zer egin dezakegun jakiteko” formazio tailerra eskaini zuen orain bi hilabete Lekunberriko Ibarberri ikastetxean. Laguntza Programako Teknikaria da eta Nafarroako Hezkuntza Saileko Bizikidetzarako Aholkularitza Zerbitzuan egiten du lan.

Zein zen tailerraren helburua? Zein gai landu zenituzten?

Tailerraren helburu nagusia eskola-jazarpena zer den eta zer ez denari buruzko informazioa ematea zen, biktima mota ezberdinak eta eskola-jazarpenaren adierazleak zeintzuk izaten diren azaltzea. Prebentzio jarduketari buruz eta eskola-jazarpena egon denaren jakinarazpen bat dagoenean edo gertatzen ari denaren susmoa dagoenean aplikatzen den prebentzio protokoloari buruz ere hitz egin genuen. Baita ziber-ja-

zarpenari ere eta familiek laguntzeko hartu beharreko jarrera eta jokabideak zeintzuk diren aztertu genituen, askotan jokabide batzuk arazoaren zati bihurtzen baitira.

Zer da zehazki eskola-jazarpena?

Eskola-jazarpena pertsonaren duintasunaren eta oinarriko eskubideen kontrako eraso da. Gaian aditua den José M^a Avilésen arabera, berdinen arteko biolentzia mota bat dela dio, behin eta berriz gertatzen dena eta denboran mantentzen dena, eraso fisiko, ahozko zein eraso sozialen bitartez biktima makurrarazi eta modu neurrigabean menderatzeko asmoarekin egiten dena eta biktimizazio psikologikoa eta bazterketa soziala ekartzen dituena.

204/2010 Foru Aginduko 15. artikuluan eskola-jazarpentzat jotzen da ikasle batek edo batzuek kide baten kontra denboran mantentzen den jokabidea, ahoz irainduz, sozialki baztertuz, psikologikoki beldurtuz edota fisikoki eraso eginez. Jazarpen jokabide hori edozein momentu eta lekutan gertatzen ahal da, baita teknologia berrien bitartez ere. Eta bertan ikastetxe bateko edo zenbait ikastetxeetako ikasleek parte hartu dezakete.

Zeintzuk dira tailerraren parte hartzaileen aldetik atera diren kezka edo gogoetak?

Tailer honetan zein beste askotan ikusten dudana kezka eta interesak batez ere seme-alaben ongizatearekin eta emozionalki osasuntsu haztearekin lotutakoak dira, baita familiaren eta seme-alaben edo lagunaren arteko harremanekin lotutakoak ere.

Atera diren gogoeten artean daude, garrantzitsuena etxean komunikazioa sustatzea dela, informaturik egotea eta eskola eta familiaren arteko harremanak sustatzea, elkarrekin lan egitea gaztetxoak ikasgelara ikastera eta ikasiz gozatzera joateko duten eskubidea berma dadin.

Nabarmenezkoa da ere, eskola-jazarpena, ikasleen artean izaten den jazarpena dela eta ez dela bakarrik ikastetxean ematen, haratago doan jazarpena dela, taldean eta sozialki gertatzen dela eta guztioi eragiten diguna.

Gainera, inguruan nagusitu ohi den isiltasunak egoera larriagotu baino ez du egiten eta ondorioz egoera horiek identifikatu eta esku hartzea zaildu egiten du. Horregatik kezka nagusia,



Jazarpena pertsonen arteko harremanak dauden edonon aurki ditzakegu.

“Beharrezkoa da ikasleak txikitatik heztea euren elkarbizitza kudeatu dezaten”

ezkutukoa izanagatik, gertatzen denean ez ohartzea eta ezer ez egitea da, biolentzia egoera hori eteteko eta gure seme-alabak bazterturik, beldurturik, mehatxaturik eta azken finean babesik gabe daudela ikustea. Eta tarteka izaten diren suizidioarekin lotutako albiste tragikoek beldur ikaragarria sortzen dute.

Uste duzu gaur egun irakasleria prest dagoela halako egoerak kudeatzeko?

Lanbide guztietan bezala, prestatuago eta inplikatuago edo gutxiago dauden pertsonak egongo dira, baina gaiaren seriotasunari buruz kontzientzia izugarria da eta interes handia dago prestaturik egon eta gaur egun ikasgelan izaten den errealtate konplexu hori kudeatzeko.

Egunerokoa, agerian dago irakasleriaren interesa eskaintzen diren formazio anitzetan izaten den asistentzia altuarengatik eta Nafarroan eskola-jazarpenera buruz egindako estatistiken emaitzak ikusten baditugu datuek prebentziorako zein esku-hartzerako duten

prestakuntza hori adierazten dute. Helburua kasu bakar bat ere ez gertatzea da eta horretarako beharrezkoa da ikasleak txikitatik heztea euren elkarbizitza kudeatu dezaten eta horretan gabiltza.

Irakasle gisa zein alderdi nabarmenduko zenituzke?

Batzuetan ikastetxean “ezer egiten ez dela” edo “beste alde batera begiratzeko dela” dioten kexak jaso izan ditut eta askotan ezjakintasunean oinarritutakoak dira. Iritzi hori askotan aldatu egiten da familiak informatu eta ohartzen direnean ez ikusteak ez duela esan nahi ezer egiten ez denik ari, are gehiago, batzuetan, ikustezin izate horrek adierazten du esku-hartzea modu diskretuan egiten ari dela, horrela biktima babestuz. Ikastetxearen prozedurari buruzko informazio zuzena edukitzeak familiak lasaitu egiten ditu.

Zeintzuk dira halako egoeratan egiten ditugun hanka-sartzerik ohikoenak?

Alde batetik, biolentziatzeko gertaerei garrantzia kentzea edo gutxitzea, jazarpena ez da broma, ez da moda bat eta ez umeen kontua. Ez da ohiko gatazka bat, bizikidetzako arazoaren esparruan esku-hartze berezi bat eskatzen du. Ez du laguntzen adiskidetzera behartzeak ezta jasaten duen hori arduradun bihurtzea ere.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat “kontakatiluaren kultura” da,

elkARRIZketa:

“Beharrezkoa da ikaslegoa protagonista izatea eta konponbidearen parte dela sustatzea”

irakatsi behar diegu ulertzen gauza bat dela ondokoari kalte egiteko informazioa ematea eta beste bat justuak edo bidezkoak izatea eta euren kideen kontra emandako egoera neurrigabeakoak salatzea.

Ez du laguntzen seme-alaben artean “jotzen bazaitu jo ezazu” esaldiaren ideia sustatzea, biolentziaren zirkulua hautsi egin behar dugu eta gatazka kudeatzeko beste bide batzuk erabiltzen irakatsi, hitzak erabiltzen irakatsi, kasu batzuetan euren burua kontrolatzen irakatsi eta beste batzuetan egoerari ez eusten eta gertatutakoa salatzen guk tresna ezberdinen bitartez esku-hartu ahal izateko. Bestetik, jazarpena leku guztietan dagoela ikustea ere ez da lagungarria, biolentziatzako eraso guztiak ez dira jazarpen egoerak. Badira berdinen arteko aldizkako elkarrenerginak, lagun aldaketak, hausturak, ikasgelaren barruko eta kanpoko arazoak... horiek ere landu egin behar diren arren ez du esan nahi atzean eskola-jazarpena dagoenik. Beharrezkoa da ikaslegoa protagonista izatea eta konponbidearen parte dela sustatzea. Batzuetan hanka sartu dezakegu, beraien onerako lan egin arren ez badugu beraiekin egiten, ardura partekatu egin behar dugu eta bakoitzak berari dagokiona egiten badu errazagoa da.

Zeintzuk dira gurasoek jarraitu beharreko pausoak?

Hasierako jarrerari dagokionez niri nire bizitza pertsonalean laguntzen didan jarrera aplikatuko nuke, “ez errealitatean baino gehiago, ezta den hori baino gutxiago ere”. Begiak ireki eta barneko intuizioari entzun, estutu gabe behatu, seme-alabekin hitz egin eta entzun, zalantza izanez gero zuzenean ikastetxera jo eta kezka hori tutoreari azaldu. Jakinarazten den momentuan bertan ikaslea babestu, eta egoera behatu eta aztertzeke barne prozesu bat jartzen da martxan. Zalantza baten aurrean egon-



Laguntza programa, batez ere LHko 4. mailak eta DBHko 1. mailan lantzen da.

“Nafarroan haurren %5,9 eskola-jazarpenaren biktima dira”

da ere Protokoloa jarraitzea gomendatzen da. Tutoreak, orientatzaileak, bizikidetzako arduradunak edo zuzendariak kasua behar bezala hartu edo aintzaketat hartzen ez duela sentitzen bada, hurrengo pausoa Heziketa Ikuskapenaren edota Bizikidetzako Aholkularitzaren esku-hartzea eskatzea da.

Eta irakasleen kasuan?

Mota horretako egoera bat ezagutzen duen edonork, izan irakasleria nahiz ikastetxeko edozein langile, jakinarazteko betebeharra du eta jarraian Protokoloa martxan jartzen da, prebentziorako edota zuzenean esku-hartzeko. Irakasleoi arrisku faktoreak murriztu eta babeserako faktoreak gehitzeko gomendatzen zaigu. Sentsibilitatea, zuhertasuna, diskrezioa eta konfidentzialtasuna aplikatzeko jarraibeak ematen zaizkigu. Esku-hartze azkarra egitea baina presaka egin gabe, laguntzarako baliabide guztiak aztertu eta aplika-

tzea, inplikaturako ikasle guztiak eta gela guztiarekin gaia lantzea, heziketarako neurriak, gertatutakoaren gaineko neurri zigortzaileak (ez pertsonaren kontrakoak) eta neurri zuzentzaileak aplikatuz.

Adin tarte zehatzik bada non eskola-jazarpen kasuak ugariagoak izaten diren?

Laguntza programa, batez ere LHko 4. mailak eta DBHko 1. mailan lantzen da, nahiz eta formazioa gainontzeko kurtsoetara ere zabaldu eta aplikatzen den. Ohartzen gara ikasgeletako harremanetatik eratorritako gatazkak batzuetan aurretik sortutakoak direla, horregatik niretzat prebentzioari dagokionez, haur hezkuntzak bere biziko garrantzia dauka, lehenbailehen hasiz gero hobe.

Askotan haur hezkuntzaz ari garenean, oso adin txikikoak direnean ez da kontzientzia nahikorik izaten jazarpena aurrera eramateko ere, baina bai harremantzeko modu kaltegarriak taldeko komunikazio sistema ez-osaungarri batengatik, non irainak, biolentzia fisikoa, norberarekiko eta ingurukoekiko errespetu falta normaltzat ematen diren.

Alderik izaten da neska eta mutilen artean?

Neska eta mutilen arteko aldeari dagokionez, azterketa batzuek ondorioztatzen dute genero bakoitzak bere be-

rezitasunak dituela: mutilei biolentzia fisikoarekin erlazionatu ohi zaie gehiago eta neskei berriz jazarpen sozialarekin. Baina nire ustez geroz eta uste gutxiago baditugu hobe, izan ere jazarpena oso konplexua da, alderdi asko nahasten direlako. Ni kasu bakoitza ekintzetatik hasita aztertu eta esku-hartzearen aldekoa naiz, adierazleak baloratuz baina ez hori bakarrik.

Oso kontutan izan behar dugu tartean dauden pertsonen ezaugarriak, intuizioa erabiliz, ahozkoak ez diren alderdiak entzunez, esaten dena eta gordezten dena entzunez, ikusteko begiratzuz eta zuhurtziaz eta umiltasunez jokatzuz. Ikusi ezinak ez du esan nahi gertatzen ari ez denik.

Nafarroan halako zenbat kasu gertatzen dira?

Laguntza Programan ditugun datuak 2015ean *Save the Children* erakundeak jazarpenari buruz egindako azterketan jasotakoak dira. 12 eta 16 urte bitarteko DBHko 21.487 ikasleei inkesta egin zitzaion eta horren arabera %9,3k eskola-jazarpena pairatu dutela ondorioztatu zen eta %6,9 ziber-jazarpena jasan zuten aurreko bi hilabeteetan. Txosten horren arabera, Nafarroan haurren %5,9 eskola-jazarpen horren biktima dira, baina gainontzeko autonomia erkidegoekin alderatuz gero azken postuan gaude. Bestalde, ziber-jazarpenari dagokionez nafarren %4,6k pairatzen du, gainontzekoekin alderatuta 16. postuan gaude.

Eskola jazarpena beti eman izan da, baina zabaltzen ari da ala ikusgaitasun kontu da?

Uste dut adin bat dugunok, beste garai batzuetan ikasgelan nahiz kanpoan ematen ziren halako jarrera asko "normalizat" jotzen zirela eta gaur egun hori pentsaezina da. Uste dut asko hobetu dugula, baina bide luzea gelditzen zaigu egiteko. Ikusgaitasun "baikorra" beharrezkoa dela iruditzen zait, sentibilizazioak sozialki elkartu eta fenomeno hau gaintzen laguntzen digu.

Geroz eta gehiago izanik elkarbizitza osasuntsu eta baketsu baten aldeko jarrera dugunak, eta gizarteak argi uztea "hegalak mozten dituzten" zenbait jokabide ez dituela onartzen eta horiei muga jartzeak ez digu uzten erosotasunean erortzen eta lan egiten jarraitzera bultzatzen gaitu.



Jazarpen jokabide hori edozein momentu eta lekutan ematen ahal da.

“Sareetan ematen den jazarpenak sufrimendu handiagoa sor lezake”

Zein izan ohi da jazarpenaren jatorria eta profila?

Jatorria aurkitzeko, biolentziaren jatorriarekin gertatzen den moduan gizakiaren jatorrira egin beharko genuke atzera, bere sorrera gure gizarteko baldintza sozial eta kulturaletan dago. Harremantzeko modua eta nagusitasuna eta sumisioa onurak, botere soziala, miresmena edota beldurra lortzeko erabiltzea, aspalditik datorren kontua da.

Ez dut uste zergati edo jatorri bat dagoenik, baizik eta faktore anitzek sorrarazten dutela. Zoritxarrez jazarpena pertsonen arteko harremanak dauden edonon aurki ditzakegu: bikote harremanetan, lanean eta gizarte osoan.

Profilarri dagokionez, Avilések dioen moduan, jazarpenak aldakortasun handia du, pertsona ahuletan eta babes sozialik ez dutenengan ematen da,

batzuetan baztertutako kolektiboetako pertsonengan, eta beste batzuetan aldiz, izaera indartsu eta bikaineko pertsonengan, arrazoi batengatik “gogaikarria” suertatzen den ezaugarri batengatik nabarmentzen den pertsonengan.

Sare sozialek eta egungo harremanetzeko moduek kalte egiten dutela uste duzu?

Sare sozialak eta informazio eta komunikaziorako teknologiak oso tresna indartsuak dira, modu egokian erabiliz gero oso lagungarriak direnak gure seme-alabentzako, baina gaizki erabiliz gero kalte esponentziala sor dezake. Sareetan ematen den jazarpenak birailitate eta audientzia kontrolik gabe zabaltzeko aukera izugarria du eta horrek sufrimendu handiagoa sor lezake, iseka egiteko objektua bera sare sozialetan dagoelako, eta biktima babesgabeagoa delako askotan ez duelako erasoak nondik datozen ezagutu ere egiten.

Urruntasunak eta erasotzailearen agerpen txikiagoak eraso erraztu egiten du. Gainera, gako sozio-emozionala murriztu egiten dira, erasotzaileak ez duelako ikusten bere ekintzak beste pertsonarengan dituen eraginak. Ez dezagun ahaztu gailuen bitartez jazarpenaren agerpena 24 ordu bidez zazpi egunekoa dela. Horregatik, esparru horretan geroz eta lan gehiago egiten gaitza ikastetxeetan. —

Bertsotan txotx!

Maiatzaren 6an bertso-afaria izanen da Oderizko Juan-luzenea sagardotegian, gaueko 21:00etan. Larraungo Bertso Eskolako bertsolariak izanen dira bertan afaria girotzen, Juan Mari Irastortza, Aitor Irastortza, Joana Ziganda, Luis Mari Larreta, Juan Kruz Martirena, Ioseba Goikoetxea, Igor Mitxaus eta Mikel Huarte. Animatu eta hartu lehenbailehen zure txartela, 25 eurotan, 680 652 183 mugikor zenbakira deituta.

Hemen da Mailope Kantuz jaialdia

Mailope aldizkariko irakurleak berriz ere taula gainera igoarazteko asmoarekin Mailope Kantuz jaialdia antolatu dugu. Ekainaren 10ean, arratsaldeko, 19:00etan Bete-luko plazan izanen da aurtengoan. Herriz herri osatutako taldeek eskainitako kontzertua izanen da eta dagoeneko Aralar Musika Eskolako irakasleek eskainitako laguntzari esker entseatzen hasiak dira.

Beraz, berotu zintzurak eta findu belarriak, aurki hemen da ta!



Juan Mari Feliu goi mendizalea omenduko dute EHME lasterketan

Ekainaren 3an, larunbata, izanen da aurtengo Euskal Herria Mendi Erronka lasterketa. Aurreko egunean, arratsaldeko 17:00etatik 19:30ak bitarte dortsalak banatuko dira Leitzako plazan eta iluntzean hitzaldi bat eskainiko da zinean. Lasterketaren egunean ere dortsalak hartzeko aukera izanen da goizeko 06:00etatik 07:00ak bitarte. Aurten, Juan Mari Feliu omenduko dute lasterketari hasiera eman aurretik. Feliu Eusko Basterrako kidea eta EGI Batasunako militatea izana da eta besteak beste 1967an Andeetan ikurrina jartzeagatik espetxeratu izan zen. Goi mailako hainbat mendi espediziotan parte hartu du.

Goizeko 8:00etan irtengo dira korrikalariak Leitzako plaza-tik. Ibilbidea iazko bera izanen da eta lehenengo korrikalariak eguerdiko 14:00etatik aurrera hasiko berriro ere Leitzara iristen. Sari banaketa iluntzeko 20:00etan izanen da.



M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

Diario Vasco eta
Diario de Navarrako
Korrespontsala

948513056
699179437

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO
HARAGIA

Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako platerak.

Ettxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.

Antigua Kalea Nº7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

Musikal ezagunenekin osatutako ikuskizuna

Joan den hilean Aralar Musika Eskolako abesbatzek "Bizitza, musikal bat da!" ikuskizuna eskaini zuten Lekunberriko kiroldegian. Dagoeneko eskaintzen duten hirugarrena da. Javier Irigoien, Aralar Musika Eskolako zuzendaria: "Abesbatza txikiko eta gazte abesbatzako ikasleak dira protagonistak. Gaia aukeratu ondoren, eskolako Satxa irakasleak moldaketak egiten ditu, zuzeneko laguntza musikalarekin egiten delako. Gidoia Natxo de Esteban irakasleak sortu zuen eta ahots zuzendaritzan Lourdes Navarro aritu zen".

Aurtengoan, azken hamarkadetan izandako musikal ezagunen doinuak taularatu zituzten. "Grease", "Rocky" eta "Sister act 2" bezalako musikalak abestu eta antzestu zituzten. Guztira, 135 ikasle parte hartu zuten eta 350 ikusle inguru bertaratu ziren. Ikuskizuna ahotsekin, musika-tresnekin, antzerkiarekin eta irudiekin osatu zuten.



350 herri bisitatuko ditu aurten San Migel aingeruak

Urteroko tradizioa mantenduz, joan den apirilaren 16an, Pazko Egunean, San Migel Goiaingerua Aralarko santutegitik atera zen herriz herriko bisitei ekiteko. 140 lagun inguru elkartu ziren lehenengo kilometroak egiten laguntzera. San Migeletik Baraibarrera mendi bidez jaitsi ziren. 10 kilometro horietan Mariano Zubiria arduratu zen aingeruaren irudia eramateaz. Hurrengo egunetan eskualdeko hainbat herritan ibili zen eta datozen asteetan guztira 350 herri bisitatuko ditu.

Argazkiak: Juan Karlos Zubieta.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



Julio Soto, Nafarroako txapeldun laugarrenez

925,5 punturekin txapela lortu zuen Julio Sotok joan den hilean jokatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean. Dagoeneko laugarrena du. Berarekin izan gara aurtengo txapelketan bizitakoak errepasatzen.

1.300 bertsozale inguru bildu ziren Iruñeko Anaitasuna kiroldegian jokatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Zortzi bertsolari igo ziren taula gainera: Julio Soto, Xabi Maia, Eneko Fernandez, Eneko Lazkoz, Aimar Karrika, Ander Fuentes 'Itturri', Xabier Terreros eta Julen Zelaieta.

Lehen zatiaren ondotik, Julio Sotok eta Eneko Lazkozek jokatu zuten buruz burukoa. Binakako bi ariketa eta kar-

tzelako lana egin behar izan zituzten azken zati horretan. Kartzelako lanean honako esaldi honi erantzun behar izan zioten: "Urduri zaude. Badator". Juliok ezin izan zion anaiaren heriotzaren gaiari ihes egin.

Jon Abril, Mikel Beaumont, Nerea Bruño, Arkaitz Goikoetxea, Izaro Mitxelena eta Saioa Mitxelena aritu ziren epamahiari. Azkenean, Julio Sotok eskuratu zituen puntu gehien, 925,5. Bere atze-

tik sailkatu ziren: Eneko Lazkoz, Ander Fuentes "Itturri", Aimar Karrika, Xabi Maia, Xabier Terreros, Eneko Fernandez eta Julen Zelaieta.

Txapeldunari, Luzia Goñik jarri zion txapela. 89 urteko emakume horrek hainbat eta hainbat bertso idatzi izan ditu eta berarekin Bertsozale Elkarteak isilean bertsozaintzaren alde lan egin duten emakumeak omendu nahi izan zituen.

Korrikako petoa ere eman zioten. Nafarroako Korrikako arduraduna izan den Asier Biurrunek jantzi zion petoa.

Bestalde, aurtengo udazkenean Bertsolari Txapelketa Nagusia jokatu da. Na-

farroako txapelketan sailkatutako lehen bostak izanen dira Euskal Herriko Txapelketan. Jarraian, Nafarroako finalean aritutako bertsolariak jasotako puntuak.



2017ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalaren sailkapena:

1. Julio Soto 925,5
2. Eneko Lazkoz 906,5
3. Ander Fuentes "Itturri" 543,5
4. Aimar Karrika 499
5. Xabier Maia 498
6. Xabier Terreros 494,5
7. Eneko Fernandez 493,5
8. Julen Zelaieta 474,5

Julio Soto

“Azken txapelketatik hurrengora bittarte pasa beharreko langa bat zen aurtengoa”

Txapelketaren aurretik orain bi urte baino lasaiago egonen zinela pentsatzen dut...

Bai, aurreko txapelketa desberdine izan zen, oain bi urte oso bapaten etorri zen dena eta txapelketa ahal nun bezela in nun. Aurten, egie esan, banion beldur pixko bat txapelketari, txapelketari berari beño gehio nere burui. Oain bi urteko txapelketa eta geo, zetorren hurrengoa zen eta pentsatzen nun gauza asko nahasiko zitzaizkitela barrenen. Azken baten, berriz e sintoni bera aitzen dozo, kasik publiko bera, gai-jartzaile berak, ia bertsozale iualak... Ordun “déká vu” sentsazio bat (jada bizitakoaren sentsazioa) eukitzeko beldurre baneuken eta saio askotan oso zaie in zait kantatzea emozio asko munitzen zitzaizkitelako. Pentsatzen nun finaleako ja sentsazio hoi pixkoat lasaittuko zitzaizkitela, beño finalen, momentu batzutan ne burue Elizondon ikusten nun eta zaille in zitzaienten. Beño banekin pasa beharreko zozer zela eta egie esan oain gustoa nao.

Buelta asko eman al dizkiozu finalean egindako lanari?

Bai, buelta dexente eman dazkiot, bereziki azken bakarkakoai. Lan hortan, hartutako bideekin ez nintzen konforme



gelditu. Emozioek gaña hartu zeien eta in nahi enun zeoze in nun, eta bereziki horrek nahiko zapore gazie utzi dit.

Ulertu nahi dot egoera zail baten neola eta “déká vu” sentsazio horrek ere iual ne alde ilunena atea zula finalen.

Txapela jartzerakoan zure irribarrea faltan bota genuen askok...

Bai, egie da kartzelako horrekin ikuttuegelditu nintzela, ni re esandakoez kontziente nintzen eta banekin nere barrue iual gehiegi erakutsi nula. Txapela jartzeko momentu hoi oso emozionantea

da, eta ni hunkittuta neon. Elizondoko oroitzen zitzazkien eta txapela jartzekoan nahiko lan neuken nere barrenen.

Txapelketetan, momentuan sentitzen dituzun urduritasun eta sentsazioen arabera, zure burua kontrolatzeko trukorik ba al duzu?

Txapelketak beti harrapatzen zatto bizitzeko momentu diferente baten, on baten, txar baten edo oso txarren, edo konfiantza gehiok in edo gutxiok in. Eta gero zuk zure izaera kontuan hartuta,



erabaki dezakezo edo saiatu zatezke jarrera bat edo beste aurkezten publiko aurren. Beño egie da geo, han, publiko aurren zainen, oso momentu emozio-nantek diela eta kontzentrazio handikoak, eta normalen gain hartzen dize horrek, ez dozo egoera guztiz kontrolatzen eta eskerrak.

Laugarren txapela duzu dagoeneko... Lehenbizikotik hona asko aldatu al da txapelketa bizitzeko modua?

Bai aldatzen da. Hau zortzigarren finala dela esango nuke eta lehendabiziko finalen, dena da ilusioa ta dena da berrie, sentsazio polittek...

“Esango nuke oain dela zortzi final beño urdurigo eta tentsio gehiokin bizitzen dittotela finalak”

Azkeneko bi hauek kenduta, orokorrean, zure buruarekin segurtasun handiagoa izanen duzu...

Bai, noski baietz, denboakin konfiantza hartzen dozo. Gutxieneko maille



Zortzi bertsolari hauek aritu ziren Anaitasunan jokatu zen finalean.

bat ematen dozola ikustek konfiantza ematen dizeo momentu zalletan aurrea itteko. Beño hala ere, nik esango nuke oain dela zortzi final beño urdurigo eta tentsio gehiokin bizitzen dittotela oain finalak. Nik uste orokorren pasatzen den gauze bat dela.

Zaleek gehiago espero dutelako Julio Sotoz?

Edo seguro aski Julio Sotok gehio eskatzen diolako oain Julio Sotoi oain dela zortzi final beño. Ordun, alde batetik, segurtasune hartzen dozo eta ikasten dozo txapelketa pixko bat naturalago bizitzen edo ohartzen txapelketa bat baino ez dela eta ez dela guk uste bezain garrantzitsue. Beño beste alde batetik, bertsoa oso bapateko gauze da eta txapelketak aurrea pasa ahala, beti dao tentsioa. Eta nik uste berdin pasatzen zaiela besteei ere.

Eta maila pertsonalean, zer ematen dizeu txapelketak plazak ematen ez dizunik?

Zure burukin daukezon borroka izugarri bat da txapelketa, tentsio eta nerbio haundik eoten die, jende asko aurren eta ordun zure burukin lanketa haundie in beharrukezo eta borroka psikologiko haundie da, oholtzara atea eta lasai xamar eoteko eta bertsoan ongi itteko.

Bertso-afari baten edo bertso jaialdi baten, normalen, askoz lasaiegi zai eta nahiz eta hor ere bertsoan ongi in nahi dozoz, errexagoa da. Txapelketak beste giro eta tentsio bat sortzen do eta entzulek ere ez daude berdin.

Eta zuek konturatzen zarete entzuleen artean dagoen giroaz?

Bai. Jaialdi baten pota bat lasai asko in dezakezo ta asko ez die ohartu re itten eta txapelketan bakizo denak adi daila. Ordun, txapelketak beti eskatzen dizeo eta eskaintzen dizeo aukera bat lan personal haundi bat itteko zure burukin, batik bat psikologikoki.

Beste alde batetik eta dudik gabe, teknikoki ere prestatzea eskatzen do eta txapelketak zure bertso maillen beste koxka bat igotzeko aukera ematen dizeo. Normalen bertsolari txapelketaik ez daukiunen, nahiko alperrak izaten ga eta txapelketa aitzaki bat da artistikoki re garatzeko. Eta txapelketak eskaintzen diten hirugarren gauze da emozio batzuk bizitzeko aukera.



Bereziak dira...

Txapelketan sortzen dien emozioak, gutxitan sortzen die jaialditan. Han daon solemnitaterik hoi eta finala aurrea joan ahala jendea ere geroz eta unkittugoa eoten da, geroz eta beroago... Txapelketan ikusten ditutu adibidez malxo gehien. Jendea askoz emozionatugoa eoten da. Nik txapelketetan bizi izan ditudoten emozio momentuk ez ditudot iñon bizitutu eta horrek e engantxatu itten zatto.

Zaleekin nolako harremana daukazu?

Bertsolarik, batik bat plazan dabilen bertsolarik, bertsozaleekin oso harreman gertukoa dauke. Normalen astebururo eoten za batzukin edo bestekin eta pentsa bertso-afari baten, 60-80 laun eta denak zure ondoan daude, denakin hitzeitten dozo. Bertso jaialditan distantzi gehio eotten da, beño hala ere gero antolatzaileekin trago bat hartzea joaten za... bertsolarie oso herritarra da.

Eta horrek ere pertsonalki asebeteko zaitu...

Noski, hori da bertso-ibilia dauken gauzik polittina, jende arten ibiltzen zala. Jende asko ezautzen dozo, bertso-aparitan mille istori izaten dittozo, ohiture ezberdinek... Eta hoi oso aberasgarrie da. Beste artiste askok ez due aukera hoi izaten. Beño horrek ere badauke bere alde txarra. Jende arten ibiltzea nekoso delako eta jende gauz asko esaten ditto... txanponan bi alde.

“Bertsolari Txapelketa Nagusian bertsoan ongi itteko ilusioekin nao”

Eskualdeko jende asko zegoen finalen... Sumatzen al duzu eskualdean ere zale asko dituzula?

Ez dot somatzen zalek dauzketenik, somatzen dot bertsozale asko daola eta normala den bezela bailarako eta inguruko jende beti gertukoa ezautzen do gehio eta gertukoa babesten do gehieo. Nik ingurun jendean babe-

sa sentitzen dot, beño denetatik eongo da... Gorritititik jende pille bat joan zen finala eta larraundarrak e joan zien eta araitarrak ere. Sentitzen dozo babes hori, bai.

Udazkenean izanen da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa. Hirugarrena izanen duzu aurtengoa...

Bai, 2009an joan nintzen lehenbiziko aldiz, 2013n berriz eta hau hirugarrena.

Eta bi horiek zer moduz bizi izan zentituen?

Lehenbizikoa, orokorren, txapelketa politte izan zen netzako. Azkena ez, azkenekoan ez nun ongi pasa kantatzen, oso lotuta eta egie esan nere mailetik oso aparte aittu nintzen.

Eta aurtengoa nola ikusten duzu?

Aurten, egie da ilusioekin naola bertsoan ongi itteko, eta ez dauket espektatiba gehio. Lehendabiziko saioa finalaurrendetakoa da eta aukera asko daukezo lehenbizikoa edo azkena izateko. Ilusioa dauket ahalik eta kontzienteen eoteko eun hortan, burue ahalik eta argien eta bertsoan ongi aittu eta oholtzatik gus-tora jeisteko.

Egunerokoan zertan zabiltza orain?

Oain gehien bat bertsoan...

Irakasle lanetan ere ibili zinen...

Bai, iaz arte irakasle ibili nintzen bertso-eskola batzuk ematen, eta hezkuntza arautun ere hiru hilabete pasa nittun.





2010. urtean irabazi zuen Sotok Nafarroako bere lehen txapela.



nao. Arkaitz biden topatu izan ez banu, nik gaur enuke bertsotan hola ingo, nik hoi garbi dauket. Gañea bertsotan gazte harrapatu nindun eta lehenbiziko txapelketak eta ordutik honeakoak bere eskutik in dittot. Lekunberriko bertso-eskolan egie da aurten gutxigo aittu naizela, beño azkeneko astek han pasa dittot eta

normalen oso zuzenak. Gero norberak bere iragazkie pasa behar dio noski.

Urtek aurrea joan ahala, zu re heldutzen joaten za eta bertsotan itteko modue re aldatu itten zaizo. Eta gauze berrik probatzen joaten za, lan itteko modu berrik probatzen, eta bertsokide askokin konfiantza itten dozo eta aholku eta pista asko ematten dazkizue... Ordun, joaten za hemendik eta handik hartzen eta garatzen eta zo barrenak eskatzen dizon hortatik gauzek probatzen. Askotan nahiko lan itsue da bertsolarina.

Beraz, orokorrean orain arteko ibilbidearekin eta txapelketarekin pozik...

Bai. Txapelketakin egie esan, finaleko bertso mailekin esango nuke erdi arte gustoa geldittu nintzela. Lehenbiziko bakarkakoan lehenbiziko bertsoa ez, beño biarrena gustoa bota nun eta gero puntutan e gustoa aittu nintzen. Beño azkeneko zatin egie esan mentalki oso-oso nekatue aiatu nintzen eta ordun bukaerako azkeneko bakarkako hoi, pentsatzen dot neke mental horrek ez dizola uzten askotan nahikoa argitasun edukitzen eta lau ordu die bertsotan...

Bertso maila aldetik ez naiz erabat beteta geldittu. Oain dela bi urte bertsotan hobeki in nun. Finala ustet erdie gustoa in nula eta beste erdie hobeki in nezake-ela. Beño pozik geldittu naiz, batik bat txapelketa hau netzako oso zaie zelako, Elizondoko txapelketatik hurrengo txapelketa bittarte pasa beharreko langa bat zen netzako eta banekin oroitzen ta sentsazio asko muttuko zitzaizkitela. Enekin nola erantzungo nien hoiri, beño pasa da eta pozik nao, langa hori ongi pasa dotelako zentzu baten. Bestetik bizkarrean markatxo bat utzi dit, beño orokorren malle pertsonalen azken bi urteotako gure bide hontan argitasune ikusten ai naizen bezala, pixkanaka jende arten eta bertsotan ere.

Pozik nao, badakitelako nolabatte hau izango dela nere txapelketaik ilunena aldarte aldetik. Sentitzen dot liberatu in naizela pixkoat eta hurrengo txapelketei begira nuen karga pertsonal hori arindu dotela txapelketan daon publikoarekiko. Eta badakit hurrengoetan jada beste argitasun eta beste arintasun bat sentittuko dotela emozio aldetik. Datozenetan ez dakit bertsotan hobeki edo okerrago arituko ote naizen, beño badakit emozionalki errexagoa iñen zaitela. —

Eta zer moduzko esperientzia?

Ongi, bertso-eskolan gustoa eoten nintzen umekin, gertatzen dena da bertsotan asteburuko martxa hain gorra denen, eta azkeneko urteotan dexente ibiltzea tokatu zat, eta astez irakasle lanetan ibiltzea bertsoaren inguruan, azkenean pixkoat bete in zitela. Aurten behintzat arnas pixko bat behar nun.

Lekunberriko bertso-eskolan zabiltza. Inoiz pentsatu izan duzu bertso-eskolaz aldatzea edo irakaslez aldatzea, ekarpen berriak izateko?

Ni Estitxu Arozenakin hasi nintzen eta gero Arkaitz Goikoetxearekin Lekunberri eta egie esan Estitxukin zortea euki nun, beño Arkaitzekin izugarrie euki dot. Arkaitzek asko eta asko eman dit: erakutsi ziten lan itteko modu bat eta ordu asko pasa ditto gurekin, eta nerekin zer esanik ez, bere etxen ere hartzen nindun. Arkaitzek asko eman dit.

Bertsolarien atzean dabilzan irakasle guzti horien lana ez da horrenbeste ikusten...

Ez, ez da ikusten, beño norberak badaki. Ni Estitxuri asko diot eskertzeko, beño batik bat Arkaitzi oso eskertuik

“Arkaitz biden topatu izan ez banu, nik gaur enuke bertsotan hola ingo”

asko ematen dit bertso-eskola horrek. Bertso malle altue da eta ikusi besteik ez dao, Eneko Lazkoz nola ai den bertsotan eta bera ere Arkaitzen eskutik ai da azken urteotan eta “Itturri” ere gure bertso-eskolan dao, Terreros, Oskar...

Beño malle pertsonalen ere asko ematen dit talde horrek. Urte asko die elkarrekin.

Baina hobetzen joatea geroz eta zailagoa egingo zaizu ezta?

Noski. Zu re azkenen pixkoat itsu gelditzen za ta ez dakizo nondik nora jo eta Arkaitzek asko zuzendu nau. Bertso-eskolako launei beti esaten nien: “Arkaitzek hitz eitten dunen eon ixilik eta entzun ze esaten dun!”. Esango dazkizo gauze gutxi, beño oso interesgarrik eta

Liburu Lagun txoko berria ireki dute Araizko udaletxean

Joan den apirilaren 23an, Nazioarteko Liburuaren Egunean bertan aurkeztu duten Liburu Lagun proiektua Araizko udaletxean. Adin ezberdinetako herritarrek zenbait libururen parte ezberdinak irakurri eta hamaiketako txiki batekin ospatu zuten Liburu Lagun txokoaren irekiera. Antolatzaileek Araxes eskolako umeei eskerrak eman nahi dizkiete egin dituzten lan ederrengatik, guneari kolorea ematen lagundu dietelako.

Araizko udaletxeko lehenengo solairuan jarri duten liburutegian hainbat liburu, komiki eta bestelako argitalpenak daude eskuragarri eta erabiltzaileek bertan irakurtzeaz gainera, etxera eramateko aukera izanen dute maileguan. Horrez gain, lan egiteko mahaiak, sarera sarbidea duten bi ordenagailu eta pantaila handi bat dago. Askok dira proiektu honen helburuak: heldu nahiz haurrentzako irakurgaiak eskaini, irakurketarako zaletasuna bultzatu, haurrei eskolako lanak egiteko leku bat eskaini, neguan jarduera ezberdinak egiteko tokia eta teknologia berriak erabiltzaileen eskura jarri.

Proiektu hau aurrera eraman ahal izateko antolatzaileek Araizko bailarako jendeari Araizko udalean izena emateko gonbita luzatzen diote.




Animatu eta parte hartu. Izena eman eta denon artean bizi eman diezaiogun Liburu Lagun txokoari!

Izen-ematea: 948 51 30 87 telefono zenbakian edo udala@araitz e-posta bidez.

- 21 -

Maiatzan, kultura protagonista

Iritsi da maiatza eta horrekin batera Lekunberrin eta Larraunen kultur egitarau zabala. Maiatzaren 12an esaterako Antonio Aretxabalagak petrolioaren merkatuak sortutako krisiari buruzko hitzaldia eskainiko da arratsaldeko 19:00etan Lekunberriko udaletxeko aretoan. Hainbat kontzertu ere izanen dira, besteak beste, hilaren 19an kontzertu akustikoa eskainiko dute eskualdeko musikariek Kantinean eta hurrengo egunean, Errazkinen Lekunberriko Abesbatzaren kontzertua izanen da. Bestalde, 26an Juan Mari Beltranek Larraungo herri dantzei buruzko lana aurkeztuko du Allin, arratsaldeko 19:00etan.



Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
 gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
 Arribe-Atallu

German Lasarte
HARATEGIA
 Aralar kalea 9
 Lekunberri
 948504157

OKM
ABOKATUAK
 Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
 Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555



Hamalau urte eta gero Korrika Araitz eta Betelutik pasa da

Urteak ziren Korrika Araitzik pasatzen ez zela, hamalau zehazki eta euskararen aldeko lasterketako edizio oro hunkigarriak diren arren, aurtengoa inoiz baino gogo handiagoarekin hartu zuten araitzarrek eta beteluarrek. Apirilaren 4an, goizaldeko laurak aldera sartu zen Madoztik Larraunera. Gaugiroak lagundu zuen eta eskualdean parte-hartze handia izan zen. Asitzen aterpean zegoen ikasle kuadrilla bat gehitu zen Korrikara eta Lekunberrira iritsitakoan lasterketako bidea herritarrez bete zen. Azpirozko gainera iritsi ahala berriz ere korrikalari kopurua gutxitu egin zen baina batzuek eskualde osoko ibilbidea osorik ere egitea lortu zuten. 2003ko apirilaren 7an Lizartza aldetik sartu zen Korrika azkeneko eta aurtien emozioa zen nagusi lekukoa Betelura iritsi zenean. Hala ere, momentu bereziarena Arriben izan zen, Juan Gorriti artistaren etxe aurrean Korrika guztiz gelditu egin zen minutu batzuek. Gorritik berak egina da azkeneko urteetan Korrikan eskuz esku pasatzen den egurrezko lekukoa eta berak eskuz idatzitako poema bat irakurri eta furgonetan zebiltzan antolatzaileei oroigarri bat oparitu zien.

Argazkilariak: J. A. Garaikoetxea eta R. Bosch.





75 korrikalarik parte hartu dute aurtengo Lekunberriko Legoa

Apirilaren 2an izan zen Arruizko Txikitoren Omenezko XXIX. Legoa Lekunberriin. Eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, proba nagusian 75 korrikalarik parte hartu zuten, kadeteak barne. Aurtengoan ohiko ibilbideaz gainera, antolatzaileek 4 kilometroko ibilbidea ere proposatu zuten. Sariak ordea proba absolutuan parte hartu zutenek baino ez zuten jaso. Lehenengo hiru sailkatuek 110, 70 eta 50 euro jaso zituzten hurrenez hurren eta eskualdean sailkatutako lehenengoen bertako produktuekin osatutako saskiak. Bestalde, Ayestaran Hotelean afaltzeko lau txartel zozketatu zituzten kuadrillan izen eman zutenen artean. Haurren proban 59 neska-mutikok parte hartu zuten, horietatik 29 aurre-benjaminak.

Proba nagusiko sailkapenari dagokionez, gizonzkoetan, Diego Quintana izan zen lehena, hemeretzi minutu eta 29 segundorekin helmugaratu zen. Atzetik Unai Plaza (00:20:24) eta Joseba Elizagoien (00:20:33) sailkatu ziren. Eta emakumezkoetan, Alejandra Arrivas izan zen azkarrena 24 minutu eta 47 segundorekin eta bigarren eta hirugarren postuetan gelditu ziren Olatz Gonzalez (00:26:32) eta Maddi Sotil (00:27:10).



Haurren proban izandako sailkapena

Benjaminak- mutilak

1. Aitor Etxerren (Berastegi): 3'10''
2. Arkaitz Zabaleta (Lekunberri): 3'14''
3. Lur Okon (Hernani): 3'16''

Benjaminak - neskak

1. Nekari Arruiz (Egües): 3'18''
2. Maiane Arretxea (Lekunberri): 3'29''
3. Yanua Lourido (Lekunberri): 3'57''

Alebinak - mutilak

1. Hodei Anaut (Leitza): 7'03''
2. Ioritz Dorronsoro (Leitza): 7'08''
3. Joar Merino (Lekunberri): 7'14''

Alebinak - neskak

1. Ilargi Etxarri (Arruiz): 8'44''
2. Nere Zabaleta (Lekunberri): 8'45''

Infantilak - mutilak

1. Ibai Arruiz (Egües): 10'35''
2. Arkaitz Mangafo (Antsoain): 12'25''

Infantilak - neskak

1. Izaro Otegi (Lekunberri): 13'11''

Kadeteak - mutilak: 4000 m

1. Aimar Saralegi (Lekunberri): 16'54''
2. Aimar Garcia (Lekunberri): 17'20''
3. Ioritz Barberena (Lekunberri): 19'16''

Kadeteak - neskak 4000 m

1. Idoia Lizarraga (Arruiz): 20'32''
2. Beretxu Labin (Lekunberri): 20'42''





Eskualdeko korrikalarien sailkapena

Xabier Satrustegi	00:20:36
Ander Arraztio	00:21:18
Mario Labin	00:21:23
Alvaro De Carlos	00:21:47
Isaac Alvarez	00:22:26
Mikel De Carlos	00:22:34
Mikel Ijurko	00:23:04
Xabier Azpiroz	00:24:10
Luis Mari Larreta	00:24:13
Iñaki Elizalde	00:24:50
Imanol Estanga	00:25:18
Ibai Soroa	00:25:20
Imanol Jaka	00:25:33
Olatz Gonzalez	00:26:32
Iñigo Iribarren	00:26:33
Maddi Sotil	00:27:10
Unai Zabaleta	00:27:36
Iñaki Albeniz	00:27:39
Mikel Otamendi	00:28:25
Igor Mitxaus	00:28:34
Arantza Mauleon	00:29:00
Martin Martinikorena	00:29:31
Oihane Etxarri	00:31:46
Andrea Etxarri	00:31:58
Josu Oreja	00:32:00
Sugoi Etxarri	00:32:01
Maialen Ruiz	00:32:17
Mikel Zabaleta	00:32:24
Iñaki Satrustegi	00:35:15

Araxes Herri Kirol Taldeko kadeteak txapeldun Nafarroako Txapelketan

Araxes Herri Kirol Taldea Nafarroako Txapelketako finalera pasa zen joan den martxoan Betelun jokatu zen jardunaldian. Finala apirilaren 2an jokatu zuten Etxarri Aranatzeko eta sariekin bueltatu ziren etxera. Haurren mailako taldea konbinatuaren modalitatean aritu zen eta hirugarren postua eskuratu zuen. Kadeteek, aldiz, emaitza hobea lortu zuten, sokatiran hirugarren postuan sailkatu ziren eta konbinatueta txapeldun. 2012. urtean hasi zen Araxes Herri Kirol Taldea txapelketetan parte hartzen eta geroztik 14 sari lortu dituzte. Bestalde, maiatzeko jokatu da Nafarroako 4x4 sokatira txapelketa eta bertan parte hartuko dute bertako bi taldek, kadeteen mailan eta 20 urtez azpikoen mailan. Zorionak eta zorte on!



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE 

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32



panaderia okindegia
GALBURU eco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Aldezaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

Pilotari beteluarrak Nafarroako txapeldun

Nafarroako Federazio Pilota Txapelketako finala irabazi berri dute Beteluko Aitzol Zubillagak eta Igor Nazabalek. Iñigo Arozenarekin entrenatzen dira astero Beteluko frontoian eta oraingoa ere hala harrapatu ditugu.

Zenbat urte dituzue?

Aitzol: Nik hamar urte eta Igorrek berderatzi eta benjaminen kategorian jokatzeko dugu.

Eta noiz jokatu zenuten Nafarroako Federazioko Pilota Txapelketako finala?

Igor: Martxoan 24an jokatu giñun, Zizurren.

Aitzol: Oberenako Julen Rekalde eta Markel Oderizen kontra aritu ginen.

Igor: Ez giñun espero, baina azkenean 18-16 irabazi giñun.

Iñigo: Egia esan, nik partidu zail xamarrak ikusten nuen beraiantzako. Rekalde pilotari ona da eta urte hasieran Obe-

renakoak hobeki ibili ziren, hauei irabazi egiten zieten, baina gero hauek ere irabazi izan diete, beraz nire zalantzak ere banituen.

Igor: Finalaren aurretik sei partidu gehi finalurrekoa jokatu genitun.

Orain dela zenbat hasi zineten pilotan?

Aitzol: Sei urterekin hasi ginen eta asten bitan entrenatzen gara.

Zer izaten da zailena?

Igor: Eskuz banakakoa, bat beste baten kontra, frontoi guzie defenditu behar duzulako eta zailagoa da.



“Zailenak eskuz banakako partiduak dira”



Aitzol eta Igorrek astean bitan entrenatzen dira Iñigo Arozenarekin.

Urtean zenbat txapelketatan parte hartzen duzue?

Iñigo: Gonbidapenen arabera gehiago edo gutxiago izan daitezke, baina gutxi gorabehera urtean zortzi inguru izaten dira.

Igor: Hiru federaziokoak, Baztangoa, Lizarrakoa, Zizurkoa, Barañaingoa...

Aitzol: Elkar pilota eta Malerrekakoa

Baina denek ez duzue txapelketa guzietan parte hartuko...

Iñigo: Ez, neronek aukeratzen dut txapelketa bakoitzean zein ikaslek parte hartuko duten.




Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldikariaren bitartez!

KuxKuxean



Eneko Etxeberria Etxarri
Maiatzaren 12an urte bat.
*Ze handia egin zaren!
Muxu bat familia guztiaren partez.*



Lander Goikoetxea
Maiatzak 2.
*Zorionak osaba Lander! Ziur
plan on batekin ospatzen
duzula.
9 muxu zuretzako!!*

Nikolas Bécares
Maiatzak 18, 2 urte.
*Zorionak potoko!! Ongi pasa
zure urtebetetzean. Muxu
handi handi bat Luana, Ama
eta Aitaren partez!!!!*



Lorea Navascues Martija
Maiatzak 2, 8 urte.
*Zorionak Lorea familia guztiaren partez.
Oso ongi pasa zure eguna.
Muxu handi bat Aita, Ama, Unax eta
Maia.*



Araika Etxarri Urbizu
Maiatzak 6, 5 urte.
*Mila kilo zorion Araika!
Eskuko hatz guztiak dituzu
jada, ongi-ongi pastu ta
muxu asko jaso ditzazula.
Matte zattugu!! Aita, ama
ta Enara.*



Jakes Iturrioz Cruz
Maiatzak 11, 8 urte.
*Zorionak Jakes.
Egun haundia izan!!
Asko maite zaitugu!*

Gurutze Otamendi
Maiatzaren 3an, 57 urte.
*Hara gure jardineko loreik polittena!! Urte askotako
ama-ama! Muxu haundiet etxeko guztin partez ta
bereziki bat haundi-haundie hiru izar bihurritan partez!!*



Aimar eta Aitzol Zubillaga
Maiatzak 4, 14 urte.
Maiatzak 15, 10 urte.
*Zorionak bikote!
Ongi-ongi pasa zuen egunetan. Muxu haundi
bana, Ugaitz, aita eta etxeko guztien partez.*

*Ongi pasa politte zure urtebetetze egunean.
Jarraitu hain zintzo eta jatorra.
Familia guztiaren partetik.
Muxu handi bat.*



Narrea Elordi Ilarregi
Maiatzak 11, 6 urte.
Zorionak Narrea!

Mailope aldikaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889



AMAIRU bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZAK

948504352

Kantina Rock

948
60
48
21

KANTINA

bokatak, platerak eta...musika.....

LARRAUN

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN s.l.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefona: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com



“Bezeroei erosotasuna eskaini nahi diet”

Duela urtebete ireki zuen Desi Zarevak Garbitze eta lisatze zerbitzua eskaintzeko zentroa Lekunberrin, orain produktu ezberdinak saltzeko denda ere jarri du.

Bulgariarra zara, baina jada zenbait urte daramatzazu Lekunberrin...

Bai, 2005ean etorri nintzen nire familiarekin Lekunberrira bizitzera. Etorri nintzen momentuan bertan maitemindu ninduen herriak. Nafarroa oso polita da, eta bertako jendea ona eta atsegina da, hemen jaio izan banintz bezala sentiarazten naute.

Nolatan erabaki zenuen zerbitzu hau eskaintzen hastea?

Lan egiteko gogoia nuen, nire familiari lagundu eta pertsoneri zerbitzu bat eskaini nahi nien. Gogoz nabil lanean, egiten dudana gustatu egiten zait.

Zeintzuk dira eskaintzen dituzun zerbitzuak?

Arropa, edredoaia, maingidireak etab. garbitu (orbanak kendu), desinfektatu eta lehortu egiten ditut hemen. Eta gero plantxatu, tolestu eta paketaturik bueltatzen diot bezeroari. Landetxeei eta ostalaritzako establezimenduekin ere lan egiten dut.

Zergatik erabaki zenuen garbitegi eta lisatze zerbitzua eskaintzea eta ez adibidez autozerbitzu gisakoa?

Autozerbitzuan makinak erabiltzeagatik ordaintzen da, garbigailua erabil-

tzeagatik zenbateko bat eta lehorgailua erabiltzeagatik beste zenbateko bat. Bezeroak ezin ditu makinak kontrolatu. Arropa garbigailuan sartu aurretik, bera arduratu behar da orbanak izanez gero kentzeaz. Gainera, autozerbitzuarekin bezeroek euren denbora galtzen dute esperoan. Zentroa ireki nuenean “Confort” jarri nion ize-na, bezeroei erosotasun eskaini nahi diedalako. Jantzi bakoitza berrikustendut eta orbanak banan banan kentzen ditut eskuz, hemen eskaintzen ditugun kalitatezko produktuekin. Makinak nire kontrolpean daude. Eta nabaritu egiten da emaitzetan. Gainera zerbitzuaren prezioa ez da autozerbitzuena baino garestiagoa eta bezeroak pozik gelditzen dira emaitzarekin.

Orain drogeria txiki bat ere jarri duzu. Zein motatako produktuak saltzen dituzu?

Erabiltzen nituen kalitate goreneko produktuak erosi nahian hurbildu zitzaizkidan hainbat bezero eta horrek eraman



n i n d u e n

denda txiki bat ere irekitzera, eskaria zegoela ikusi nuelako. Etxeko erabilerarako produktu profesionalak saltzen ditut. Arropa ilun eta beltzentzako, kolorezko jantziertzako eta zurientzako detergenteak eta leungarriak eskaintzen ditut, baita arropari usaina kentzeko produktuak ere. Ez dira ohiko salto-kietan aurki ditzakegun garbigarriak, jantziak garbitzeaz gainera, materiala, kolorea eta pertsonen osasuna ere zaintzen baitute. Alergien kontrakoak dira eta larruazala erasotzen ez duten osagaiak dituzte. Garbigailuan nahiz eskuz erabili daitezke. Horrez gain, etxea garbitzeko produktu ezberdinak eta kosmetika ere saltzen dut.

Zer moduz doakizu?

Ongi, baina oraindik askok ez dakite Lekunberrin, etxetik gertu garbitegi zerbitzua dagoenik. Pixkanaka geroz eta lan gehiago daukat, dagoeneko bezero fidelak ere baditut, beste inora eraman edo euren kabuz garbitzea baino errentagarriagoa zaiela konturatu direnak edo baita erositako produktuekin pozik gelditu direnak ere.

FITXA

Confort Zentroa
602 624 406 / 606 536 095
centroconfort@outlook.es



>> Nor da Nor?



Nor da nor?
Nortzuk azaltzen dira argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?



Erantzunak hurrengo
alean kaleratuko ditugu!
Ea asmatzen duzuen!

Aurreko alean kaleratutako argazkian...
Ezkerretik eskuinera:

Oihan Igoa, Angel Ayestaran, Eñaut Zubieta, Aritz Irastorza, Ane Ezkurdia, Iñaki Galarza, Amaia Peñalver, Paula Etxarri, Aitor Etxarri, Carmen Rubio, Aitana Bernabeu, Garazi Moreno, Nerea Zubieta, Laura Irujo, Yue Uriarte, Nekane Arribillaga eta Maria Barbero.



Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.

TAXILON
Lontxo Otamendi Artola
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Aritz

SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA
URZUBI S.A.
Tel. 948 50 42 41 Lekunberri
Fax 948 60 45 20 urzubi@hotmail.com

GARAJA
Zure behar eta ordutegira moldatuko gara
Mate erdi eta goi zikloetarako prestaketa
Fisika Inglesa 948 504 450
lengua kimika 648253523
buskera marrazketa teknikoak
historia
unibertsitate mailako ikasgaiak

Barrenak garbi mantenduz

Kaixo denoi, hemen naiz berriro ere, opor motz hauek pasa eta gero gure gorputza nola garbi dezakegun kontatzeko. Esan bezala oraingoan ere elikaduraz hitz egingo dut baina modu bereziagoan. Gaurkoan, gure gorpuzteko organo batzuk izango dira protagonistak, giltzurrunak, behazuna eta batez ere gibela. Aipatu ditudan organo edo ehunak oso garrantzitsuak dira eta horretarako hauek garbi eta ongi zainduak mantendu behar ditugu. Jada bada hilabete baino gehiago sartu garelara udaberrian baina garai hau da batez ere garrantzitsua hauen garbiketarako. Hona hemen ezinbestekoak izango diren elikagaiak zure dietan garbiketa honetarako:

-ALKATXOFAK EDO ORBURUAK: Gibela eta behazuna garbi mantentzen laguntzen du. Bezaun gehiago sorrarazten laguntzen du, eta honek digestioan asko lagunduko digu. Bestalde, toxinak kanporatzen laguntzen du baita ere. Gainera orain berdura hau garaian garaian gaude.

- BARATXURIA: Elikagai hau egunero pixka bat jaten badugu gure gibleko entzimak aktibatzen laguntzen digu eta gainera bertako toxinak kanporatzen laguntzen dute. Selenioa eta alizina du eta hauek organo hau garbi mantentzen laguntzen dute.

-POMELOA ETA LIMOIA: Fruta hauek duten C bitamina kantitateak eta antioxidatzaileak desintoxikazioan laguntzen dute. Sagarra digestio aparatua garbi egon dadin lan egiten du.

-AZENARIOA: Beta-karotenoak edo A bitaminak (begetala) ere asko laguntzen du gibelaren funtzioetan.

-ESPINAKAK ETA ZERBAK: Klorofila ugari dute eta nutriente hau ere oso garrantzitsua da. Gainera odoleko toxikoak xurgatzen ditu.

-BROKOLIA: Entzima gehiago sorrarazten laguntzen eta substantzia txarrak kanporatzen laguntzen du.



-MIHILUA (hinojo): Gibela eta giltzurrunak osasuntsu egoten laguntzen du. Likidoak kanporatzen laguntzen du eta antiinflamatorio bezala ere erabiltzen da. Digestioa errazten du, desintoxikatzen laguntzen baita kolesterol txarra jaisten.

-TXIKORI BELARRA (diente de león): Hau oso belar garrantzitsua da gibelarentzat, asko garbitzen baitu. Likidoak eta toxinak kanporatzen laguntzen du baita ere.

Ea hauetako batzuk jaten edo hartzen zareten. Organo hauek oso garrantzitsuak dira eta oso ongi zaindu behar ditugu. Hurren arte.

Harremanetarako:
608 32 19 05 / neresotil@gmail.com
Kontsultak: San Anton kalea, 12 (Iruña),
La ventana natural belardendan.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 **696 658 288**
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL**
LEKUNBERRI
Suaren kontrako plakak
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

IORTIA CLINICA DENTAL HORTZ-ESTETIKA
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

maiatza

agenda

6

Bertso-afaria Oderizko Juanluzenea sagar-dotegian, gaueko 21:00etan, Larraungo Bertso Eskolako bertsolariekin.

13

Bertso-afaria Azkarateko Balerdi elkar-tean, 21:30etan, Jexux Mari Irazu eta Unai Agirrerekin.

EUSKAL HERRIKO KONTAKT INPRO ELKARTEA LEKUNBERRI 2017 - IV TOPAKETA

Maiatzak 26 Ostirala

- 19:00-21:00 Harreraren hasiera
- 21:00-00:00 Irekiera zirkulua + JAM

Maiatzak 27 Larunbata

- 10:00-11:30 IÑAKI SANTOS "Lehenengo kontakua"
- 11:45-13:15 JAVIER MARQUEVICH "Los sentidos que habito"
- 13:15-14:00 JAM
- 14:00-16:00 BAZKARIA
- 16:00-18:00 EHKIE BATZARRA
- 18:00-20:00 MARÍA MORA "Tensegridad, una visión dinámica del cuerpo humano"
- 20:00-22:00 AFARIA
- 22:00-00:00 JAM
- 00:00-!! !??? FESTA KANTINAN

Maiatzak 28 Igandea

- 10:00-11:30 BORJA IZAOLA "La evolución de la especie contactera"
- 11:30-12:30 IZASKUN LAPAZA eta MAIDER OIARZABAL "Transhumantziak" performancearen prestaketa
- 13:00-14:00 "Transhumantziak" PERFORMANCE
- 14:00-16:00 BAZKARIA
- 16:00-18:00 JAM

CONTACTKIDS MAITE VEGA

- Larunbatean: 11.45-12.45
- Igandean: 10.30-11.30
- izen ematea/inscripciones: www.ehkiekontakt.wordpress.com

merkatu txikia

SALGAI

- Lekunberrin 90 metro kar-ratuko etxe adosatua salgai, 3 logela, sukaldea, egongela, bi bainu, garajea eta terraza. 190.000 euro. Harremanetarako: 679 631 725 (Aitor).



- Volkswagen California Coach T4 salgai. 2.5Tdi 5 zilindroak 102cv. Nazionala. 340.000Km. Oso ongi zainduta, beti garagen. Extra askoekin (Bizikletak eramateko euskarria, toldoa, aurreratze sistema, berogailu estatikoa, bihurtgailua...) Argazki eta informazio gehi-
agorako jarri zaitez harremanetan: 630 041 480.



BESTERIK

- Pianoa jotzen hasi nahi baduzu, nire etxean, Lekunberrin, klaseak eskaintzen ditut. Anima zaitez eta deitu 636 390 356 telefono zenbakira. (Luci).

Maiatzan Kultura 2017

- 4** Literatur solasaldia Arkaitz Kanorekin, 18:30etan, Mitxausenean.
- 5** Aralar Musika Eskolako talde instrumentalen kontzertua, 20:00etan, Kantinan.
- 6-7** Bigarren eskuko merkatua, egun osoan Lekunberrin. 12 Petroleoaren merkatua eta krisi amaigabeari buruzko hitzaldia Antonio Aretxabalagaren eskutik. 19:00etan Lekunberriko udal aretoan.
- 13** Grafitti tailerra 12 eta 16 urte bitartekoentzat.
- 13** Zamarren kontzertua, 19:00etan, Aldatzen.
- 14** Herri Urratsera autobusa.
- 19** Eskualdeko musikari saio akustikoa, 19:00etan, Kantinan.
- 20** Lekunberriko abesbatzaren kontzertua 19:00etan, Errazkinen.
- 20** DBHko 3. eta 4. mailako gazteentzako puzgarriak, 20:00etan, igerilekuan.
- 21** VII. Argazki rallya, 10:00etan, Mitxausenean.
- 25** Eskolako antzerkia, 15:00etan.
- 26** Juan Mari Beltranen "Larraungo herri dantzak" lanaren aurkezpena, 19:00etan, Allin.
- 27** Futbol 7 Txapelketa.


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15**
948 60 47 24

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

